

BIDEOA IRAKASKUNTZAN

Sabin Oregi Zarautz

Cuadernos de Sección. Educación 4.(1991), p. 211-217
ISSN 0213-3636
San Sebastián: Eusko Ikaskuntza

Media berriak, ikus-entzunezkoak bereziki, ezinbestekotzat jotzen ditugu ezagutza atzemate munduan, egungo gizartean duten eragin handia dela eta. Egileak lehen taula batean aurkezten digu bide tradizionalak (arbelaz baliaturiko irakaslea) jasotako ezagutzen atzemate-maila eta bide berriez (bideo, teiebista, zinea...) erdietsitakoa: bertan aurkezten digu nolako atzemate-maila dugun informazioa jaso eta hiru ordutara nahiz hiru egunetara. Beste grafiko batek erakusten digu zer bidetatik jasotzen dugun gure inguruak emaniko informazioa.

La influencia que los nuevos media muestran en nuestra sociedad actual, especialmente los audiovisuales, nos llevan a considerarlos como elementos indispensables dentro del mundo de la adquisición de conocimientos. El autor nos presenta en una primera tabla la retención de los conocimientos adquiridos por las vías tradicionales (profesor con ayuda de su pizarra), o por las vías nuevas (vídeo, televisión, cine...); donde nos muestra la retención que poseemos a las tres horas de recibir la información y a los tres días. Otro gráfico nos muestra los canales por los que adquirimos la información sobre lo que nos rodea.


Aujourd'hui l'influence des nouveaux média, notamment les média audiovisuel, ont contribué à améliorer et à concrétiser l'utilisation de la vidéo et de la télévision dans le monde de l'enseignement et de l'éducation. Dans le présente article l'auteur nous montre la capacité de l'influence des différents supports de l'audiovisuel; tel que moyens sonores (professeeus radio, disque, cassette...) vues (tableau -noir ou blanc-, photo, peinture...), sonores et vues (vidéo, cinéma, télé, diaporama...). Dans une graphique nous montre la rétention que une personne normal peut avoir depuis 3 heures, et depuis 3 jours. Dans une seconde graphique nous montre par quels canaux sensoriels nous recevons les informations et perceptions des situations dans lesquelles nous sommes immergées.

Gaur egun bideoaren eragina izugarria dugu mundu guztian. Bere eragina handiena dugu, eta burura ekar dezakegun edozein alorrean. Beno orain arte ezagutzen ditugunetatik handiena bederen. Ezagutzen dugun bezala bideoak hiru euskarri erakusten digu; gogoratu ditzagun banan bana: entzunezkoa belarritik sartzen zaiguna, ikusizkoa begitik sartzen zaiguna eta azkenik irakurrikkoa ikusizkoaren moldapena dela esan dezakeguna, zeren jakiten ditugun ikurrak gizartearen asmatuak ditugu geure artean komunikatzeko asmoz.

Aipaturiko hiru euskarri hauek elkarturik lau dimentsioetako albiste orokorra eskaintzen digu. Irudiak berak bi dimentsio eskaintzen ditu, hirugarrena hotsak, soinuak ekartzen digu, eta laugarrena ingurugiroak betetzen edo markatzen du. Ingurugiroa hitza erabiltzen dugunean lekua, tokia eta bertan egon edo dagoen ambientea, giroa, zarata haundiago ala txikiagoak aipatu behar dira, eta kontutan hartu ere noski.

Aipaturiko guztia kontutan izanik lau dimentsiodun albiste datorkigu, eskaintzen zaigu. Albiste honek oso iraupen handia du geroago marrazkian ikusiko dugunez. Bertan dakusgu nola ikusentzunezkoak erabiliz gero, umeak albisteak jaso duen unetik hiru ordutara ehuneko 85a buruan gogoratzen duen, ehuneko 65a izanik hiru egunetara. Entzunezkoen munduan umeak entzun duen unetik hiru ordutara %eko 70a gordetzen du ikasleak, %eko 10era jeitzen dela hiru egunetara, ondoko marrazkian ikusterik dugunez.

Irudia bakarrik erabiltzen badugu %eko 72ak zerbait gogoratzen dute hiru ordu geroago eta %eko 20ak hiru egun igaro ondoren. Irudia hitza erabiltzerakoan aipatu nahi genituzke marrazkiak, argazkiak, diapositibak, erretroproiekzioak, batzu aipatzeaz.



Bideoa ikusentzunezko bitartekoen artean kokatzen dugu. Ez dira gutxi bideoa Mediaren artean sartzen dutenak komunikatzeko bide berri hau. Geuretzat Media eta Ikusentzunezko Bitartekarien arteko bereiztasunak ondorengoak bezala har genezake:

* Multzo Bitartekariak, Mass Media izenez esagunagoak, albistea solasean eskaintzen dute. Bertan mezu emaila talde monopolitikoak da, eta aurreratuenak diren teknologiak eta oso garestiak, merkatal zentzu batez norbanako batengana zentzu bakarrean zuzentze dira.

* Ikusentzunezko Bitartekariak ordez, albistea zerbait irakastearren eskaitzen dira. Bertan mezu emaila talde txiki bat eta sarritan hartzaile berbera dugu. Esan berri dugun hau Komunikazioaren aztertzaileek Self Media izenez ezagutzen duten. Sail honetan erabiltzen diren teknologiak errazak eta merkeak dira, eta albistea zentzu publiko, orokor eta zabal batez eginak dira.

Definizio hauei amaiera emateko, gauza bat gogoratzea geratzen zaigu: beti ondo landu eta bideraturiko albistea ikasketa bat da.

NONDIK ETA NOLA JASOTZEN DUGU ALBISTEA?

Guk, pertsona bezala bizitzako gauzak bost zentzumen ezberdinetatik jasotzen ditugu. Ondoko marrazkian argi agertzen zaizkigu bizitzaren zenbat albiste gureganatzen dugun zentzumen bakoitzatik.

Horrela begietatik %eko 83a jasotzen dugu, belarrietatik %eko 11a, zudurratik %eko 3,5a, eskutik %eko 1,5a eta ahotik %eko 1.

Beraz esandakoak egiazkoak badira ikusmena eta entzumena ditugu kanpoko albistearren berri gehien ematen digutenak, Bi bide hauetatik heltzen zaiguna kontutan izanik geure garunak kanpoko bizitzaren berria %eko 94an begi-belarrietatik jakiten du.

Ene eritzi apalean ez du zergatik bideoak irakaslea baztertu behar. Baizik irakaslearen laguna eta lagungarri bilakatu, ikasleari azaltzen zail gertatzen diren gaietan.

ZERGATIK BIDEOA SARTU ESKOLAN?

Bideoak, eta telebizioak zentzu orokorragoan, edozein hizlariet nahiz eta trebatuena izan hau, jendea eragingarritzea zaila bazaio eragingarritasun eza horri eragingarritzen dio bideoak.

Hori esateko ondoan aipatzen ditugun arrazoiak ditugu:

1.- Irudiak halako 'magia' berezi bat dauka, eta bere aurrean isil-isilean harrapatzen zaitu, telebisiao begira izaten zaitu, eta besterik egin gabe. Atentzio guztia berak erakartzen duela. Bere aurrean zaudenean ezin duzu beste gauza bat egiten egon.

2.- Gauzak, jazoerak Telebizioaren lehioetik gertatzen diren bezala iristen dira, eta haurraren gana zer esanik ez. Adibidez nola sortzen den landarea. Hau ikusten du pantailan. Baina detaileak ikusi ez balitu, ahal du irakasleak zinta atzera bialdu eta berriro sekuentzia eskaini. Paragrafo hau bukatzeko, nahiz ahalezkoa izan gelan landarea sortzea, eta zuzenean bere haztea ikustea izan, ezin genduke detaile txikietan konturatu. Horretan laguntzen gaitu bideoak.

3.- Sarri ezina gertatzen zaio irakasleari gela guztiko haurrak leize batera eramateak, esaterako. Horrelakotan guztiz da erabilgarria bideoa irakaskuntzan.

